

ni, hi, hura...
ikastola mundura!



Kilometroak
urriaren 6an Zarautzen



**DIBERTSIFIKAZIOA
ETA PERTSONEKIKO
KONPROMISOA
DIRA GURE
ETORKIZUNeko
BERMEA**

Erreka Taldea
Ibarreta Auzoa z/g
20577 Antzuola. Gipuzkoa

T. 943 786 150
F. 943 787 109
info@erreka.com

www.erreka.com



FINKAPEN SOLUZIOAK



PLASTIKOAK



AUTOMATISMOAK



ATE AUTOMATIKOAK



Munduratzeko segitzeko

Belen Murua

Ikastolako zuzendaria

Sustraietatik amestetara' dio Salbatore Mitxelena ikastolako leloak, ondo errotutako zuhaitza kolore anitzez eta osasuntsu irudikatuta. Barnetik kanpora zabaltzen da, eta ikastolan hazia botatzen duen haurren ibilbidea marraztu nahi du. Ildo berari eutsi dio Kilometroetako leloak: Ni, hi, hura... ikastola mundura! Ni gisa sartzen da haurra gure hezkuntza-komunitatean, HI eta HURArekin nahasten, hazten eta hezten da, eta GU bilakatuz munduratzeko da, euskarazko hezkuntza integrala jasota, balio aurrera-koiz eta parekidez jantzia.

Izan du, izan duenez, bila-kaera izugarria honaino iristeak. 54 urtekoibilbidean pedagogikoki etengabe jantzen eta eraldatzen joan gara. Horrek inbertsio handiak eskatu dizkigu, baina orain arte eraikitakoa bilakatzen segitzeko ezin gara beratan goxo geratu.

Ez zen erronka makala izan Kilometroetako lekukoa

hartzea. Baina sendo heldu diogu urte osoan, eta gure hezkuntza-komunitateak beste behin erakutsi digu auzolanaren indarra. Egin dugu gogoeta *Ikastola: zergatik eta zertarako* mahai-inguruan; sortu dugu web-gune bat, adin eta zailtasun-maila guztiei egokitutakoa, Zarautz inguruko mendi-bidekak ezagutzeko; antolatu dugu Kilometroak txikia; guraso, ikastolako langile, ikasle eta irakasleen artean ondu ditugu Kilometroetako kanta eta bideoa, Hondartza Hartu ekimena egin dugu herriko eragileekin; tonbola ikusgarria jarri genuen uztailaren hondarrean malekoian; Realak ere jokatu zuen kilometroen alde Astin; osatu dugu Euskal Herriko eskubaloi-topaleta. Parte hartu dugu Lilatoian, Korrikan zein herriko beste hainbat ekintzatan. Kilometroez blai joan da iazko ikasturtea. Ezin ahaztu Gure Zozketako eta arropa-arloko lantaldeek egindako lan eskerka. Guztien berri osatua *kilometroak.eus* helbidean daukagu. Azken

Azken txanpan gaude. Egitarau oparoa ondu dugu, eta prest gaude mundu bat hartzeko urriaren 6an Zarautzen. Euskal Herria ardatz duen euskarazko hezkuntza-proiektua sustatzen segitzeko, munduratzeko jarraitzeko, *Ni, Hi, Hura... ikastola mundura!*

Aurkibidea

Zuzendariaren agurra	3
Gure ikastolaz	4-5
1987 eta 2004	6-7-8-9
Abestiaren letra	12
KMK zenbakietan	13
Ibilbidea	14-15
Egitaraua	16-17-18-19
Jolas parke berria	20-21
Erronka	22-23
Denbora-lerroa	25-26-27
Zikloaren amaiera	28-29





4 //

Gure ikastolaz

KILOMETROAK

Lehendakariaren azaletik

Beti esan ohi da Ikastola auzolanean, herritik sortutako eragilea dela. Hezkuntzaz gain, gizartean eragitea ere helburu duena. Praktikan, ordea, non ikus daiteke hori? Iñigo Ameztoik hiru urte daramatza lehendakari izaten, eta ondo baino hobeto eza gutzen du Ikastolaren barnefuntzionamendua.

Batzordekideek hartzen dituzte erabakiak, eta batzordea zortzi gurasok, zortzi langilek (zazpi irakasle eta bestelako langile bat), zuzendariak eta gerenteak osatzen dute. Azpibatzen dira arlo zehatzagoz: Pedagogia, Sustapena, Ekonomia, Bizikidetzeta, Zerbitzuak eta Kirola.

Ameztoik maitasunez eta miresmenez hitz egiten du ikastolaz. Sortu zeneko garaia eta unea kontuan hartu-

ta, garbi dauka aitzindari izan zirela gaur egun normaltzat jotzen diren hainbat arlotan. Argienak, hizkuntzaren erabilera eta D eredua; baina baita hainbat genero- eta pedagogia-ikuspegi ere. "Gaur egun ezin dugu irudikatu Za-

rautzen D eredukoa ez den hezkuntza-sistematik, eta nik uste dut hori Ikastolak herriari eman dion zerbait dela".

Ikastolen eta eskola publikoen inguruko eztabaida pilean dago garaiotan, eta

Ameztoik garbi du Euskal Herriko zazpi probintziak barnebiltzen dituen hezkuntza-proiektu bakarraren alde egingo duela. "Berdin zait Ikastola izena duen edo ez, baina guk daukagun filosofia da nik balioan jartzen duda-



Gasgarin S.A.

GAS REPSOL AGENTZIA

TEL.: 943 88 25 76





na. Euskal Herri guztian ego-
tea eta publikoa izatea; hori
izan da beti gure erronka, eta,
oraingoz, gu gara mota ho-
rretako proiektu baten alde
egiten dugun bakarrak".

Zutabe horien gainean
eraiki zuten Zarauzko Ikasto-
la bera ere, baina urteen joa-
nak berekin dakar garai be-
rrietara egokitu beharra.
Eraldaketa-prozesu sakon
batean sartuta dago Salba-
tore Mitxelena ikastola gaur
egun. Lehen Hezkuntzako
maila txikienetako korridore-
an ikusgai dago hori, guztiz
itxura berria baitu, zeinak be-
heko patioaren alboko gune

berriaren ildo berari jarrai-
tzen baitio. Begiak ez dira,
ordea, aldaketa guztiak ikus-
teko gai. Kilometroetan lor-
tutako dirua, hain zuzen,
marko pedagogiko berria

Kilometroetan lortutako dirua irakasleen formakuntzara bideratuko dute

osatzen jarraitzera bideratu-
ko dute. Azpiegiturak eralda-
tu ordez, ordea, irakasleen
formakuntza osatzeko erabi-
liki dute. "Garai berrietara
egokitu beharra dago, eta

formakuntza inoiz amaitzen
ez bada ere, horretan inberti-
tu behar dugula uste dugu",
azaldu du Ameztoik.

Lortutako dirua zertan
erabili garbi dute, baina ho-
rren aurretik lan handia dago
egiteko. Ez da erronka maka-
la Kilometroak antolatzea,
eta lehendakariak aitortu du
jakin zuenean apur bat bel-
durtu zela. "Egunerokotasu-
narekin jarraitu behar dugu
guk; batzordearen funtzio-
namendua betikoa da. Ho-
rrez gain, Kilometroak anto-
latzeko urte osoko lana hartu
dugu bizkar gainean". Kilo-
metroen alde mugitu diren

gurasoak asko izan direla
dio Ameztoik, "batzordekide-
ak ez diren guraso askok
hartu dituzte ardura potolo-
ak".

Hasierako beldur horiek
uxatuta, "eramangarria" ari
zaio egiten antolaketa pro-
zesua, zama bizkar askoren
artean banatu dutelako.
"Jendea ikaragarri ari da in-
plikatzeko; hunkitu ere egiten
naiz". Guraso guztien orde-
zari den aldetik, eskerrik be-
roenak eman nahi izan dizkie
ekarpena egin duten gainon-
tzeko guraso guztiei, bestela
ezin izango bailitzateke au-
rterra egin.



AGUINAGA

Urteta bidea, 7 · ZARAUTZ
943-13 43 93
www.fordaguinaga.com

- 1956.urtean sortua
- 1986.urteetik **FORD** markaren **ZERBITZU OFIZIALA**

ZERBITZUAK:

- Autoen mekanika eta elektrizitatea
- Multimarka diagnostika
- Ibilgailuen karrozeria
- Pneumatikoen aldaketa
- **FORD** autoen salmenta





6 //

Lehendakari ohiekin solasean

KILOMETROAK



Ezkerretik, Balentziaga eta Makazaga. AMAGOIA GURRUTXAGA

«Oraindik ere badago zeregina»

Aurtengoa ez da Kilometroak Zarautzera heltzen den lehen aldia. 1987an eta 2004an ere bertan egin zen Gipuzkoako ikastolen festa. Isai Balentziaga Salvatore Mitxelena Ikastolako batzordeko lehendakaria zen 1987an, eta Joseba Makazagak lan bera betetzen zuen 2004an.

Ikastolen mugimenduko garai desberdinen lekuko izan dira bi elkarrizketatuak, eta bien garaian izan dira ezinbestekoak ehunka gurasoren eta laguntzaile boluntarioren lana eta babesa. 1987an, esaterako, 642 guraso zeuden Zarauzko ikastolan, eta hamahiru batzordetan antolatatu ziren Kilometroak eguna —eta egun horri begirako ekitaldiak— aurrera ateratzeko. Isai Balentziagak gordeta dauka Batzorde Koordinatzaileko bost kideen eta batzordeetako arduradunen telefonoen zerrenda.

Euskal Herri bat, Euskal Eskola publiko bat izan zen urte hartako Kilometroetako leloa, eta bertan jasotako dirua hiru zatitan banatzea erabaki zuten antolatzaileek: Zarauzko ikastolarentzat izango zen bat, eta beste bana Nafarroako eta Seaskako ikastolentzat. 15.800 auto eta 97 autobus etorri ziren 1987ko urriaren 4an. Garraio publikoz, berriz, 14.000 pertsona —12.000 trenetz eta 2.000 autobusez—. Ia 32 milioi pezeta (192.000 euro) bildu ziren. 1.500 bat boluntario aritu ziren lanean.

Joseba Makazaga lehendakari zen urteko Kilometroen leloa, berriz, *Olatu berria* zen, eta hiru ikastetxeren artean antolatu zuten: Orioko Herri Ikastola, Zarauzko Salvatore Mitxelena Ikastola eta Zarauzko Oteitza Lizeoa. 600 pertsona ibili ziren urte hartan lanorduetatik kanpo ahal zutena eta gehiago ematen; eta urriaren 3ko egun handian, berriz, 3.000tik gora. 120.000 euskaltzale inguru bildu ziren Orio eta Zarautz lotzen zituen ibilbidean. **Isai, zuk umeak ikastolara bidali zenituen, baina ikasto-**

len oso kontrakoa zen Francoren mendeko Eskola Nazionaletan ikasia zara. Nola-koa zen hura?

ISAI BALENTZIAGA: Ni Arrokoa naiz izatez eta, 1936ko gerra hasi zenean —4 urte eta erdi paseak nituen—, aita Bilbo aldera joan zen kamioiak blindatzera. Horregatik, frankistek Arroatik bota gintuzten ama, hiru ume, izeko eta beste, Bilbo aldera. Gernikatik bonbardaketa izan eta hurrengo egunean pasatu ginen, Forua aldera. Handik, Villaverde Turtziozera, Santanderrerako [Espainia]





KILOMETROAK

Lehendakari ohiekin solasean

bidean. Bonbardaketa guztiak harrapatu genituen bidean; trenbideko tuneletan-eta ezkututzen ginen. Handik, Frantziara. Arroara handik bueltatu ginen, frantses pixka bat ikasita eta euskara ahaztuta. Hona etorritakoan, kontrakoa gertatu zitzaidan: frantsesa ahaztu eta euskara ikasi genuen atzera.

Eskolan, baina, dena gaztelaniaz. Euskaraz egiten harrapatuz gero, zigorra. Harri-koskor pilo baten gainean belauniko jarri ninduen behin andereñoak, euskaraz egite-agatik, eskuak zabaldu eta haietan liburuak ipinita. Eta, gero, eraztuna ere jarri zidaten. Horrek kontzientzia bat ekartzen dizu, noski.

Zu, Joseba, beste belaunaldi batekoa zara.

JOSEBA MAKAZAGA: Ni ikastolakumea naiz. Anaia zaharrena Zarauzko ikastolako aurreneko ikasle-taldekoa izan zen. Haiek bi urte egin zituzten, baina ez zuten lortu ikasketetan jarraipena izaterik; bigarren umealdikoek bai, haiek lortu zuten ikasketak bukatzea. Nik ez dakit zenbat toki desberdinetan aritu naizen ikasten: Santa Klarako komentuan; errepide nagusira ematen duen fraideen ez dakit zein lokaletan; Gurmendi kaleko izkinako lokaletan; Azken Portuko kristau biltokia dagoeneko horretan; Ongi Etorriko garajeetan; Alfan... Batetik bestera egin dut ikasketa parte handi bat, herritarrek eta erakundeek utzitako lokaletan. Eta orain gauden eraikin hau



egin zuten. Ez dakit zenbat urte izango nituen hona etorri nintzenez. Oinarrizko Heziketa Orokorreko seigarren maila egitera etorriko ginen. Hau ikaragarria zen guretzat, gela handiekin-eta.

BALENTZIAGA: Nire seme-alabek hemen ikasi dute.

Hala ere, asko aldatu da urteetan zehar, ezta?

MAKAZAGA: Bai, bai. Goiko solairurik ez zegoen, beheko partea ere ez.

BALENTZIAGA: Ni neu guraso nintzela bi gela egin ziren, gutxienez. Beti ibili gara egiten eta egiten.

Tartean, Kilometroei esker.

Lehen kolpean, zer gogoratzten du zuetako bakoitzak lehendakari rolean egokitu zitzaion Kilometroak jaiari buruz?

BALENTZIAGA: Gogoan daukat txosnak ez genituela, eta astebete lehenago Salburuan Alderdi Eguna egin zuten ez EAJkoek, haiek eskura-

tzea bururatu zitzaigula. Lortu genituen, batera eta bestera deituta. Salburuan zeuden, eta, desmuntatu aurretik, kamioiekin joan eta geuk ekarri genituen. Hemengo boluntario-jendeak muntatu zituen.

Jarritako helburuak bete ziren, eta oso ederra izan zen egun haren emaitza. Kilometroak hura egin zenean erai-kin hau hemen zegoen jada, baina txikiagoa. Lan asko egin zuen jendeak. Umeak ikastolara bidaltzea garai hartan ez zen gaur egun bezala, jakina, baina nahiko askatasunekin egiten zen lana orduan.

MAKAZAGA: Gurea ez da jada hauen garaikoa bezalako izan. Hauek txosnak eta beste nondik lortu ezinean ibili baziren, gure txanda ailegatu zenean urte askoko esperientzia zegoen bilduta, eta erdi-antolatuta etortzen zen kontua Ikastolen Elkar-





8 //

Lehendakari ohiekin solasean

KILOMETROAK

tetik. Arropa-salmenta izaten zen lan handiena, batez ere. Leku askotara joan behar izaten zen, eta horretarako batzorde berezi bat antolatu genuen. Egundoko lana egiten zuten haiek. Euskal Herrian festa asko izaten da, eta denetara joaten saiatu ginen materiala saltzera. Aurten bezalaxe, pentsatzen dut. Gure Kilometroak oso berezia izan zen, hiru ikastetxeren elkarlanaren emaitza izan zelako. Oteitza Lizeo Politeknikoa antolatzeko dirua biltzea zen asmoa, eta lortu zen. Antolaketa erdi-marraztuta zegoen, esan dudan bezala, eta, alde horretatik, guri egundoko lana kendu ziguten.

BALENTZIAGA: Gurea askoz amateurragoa izan zen, bai. Kilometroak egin behar zirela, eta txosnak, janariak, edariak eta beste nola lotu asmatzen ere nahikoa lan. Aurreko Kilometroetakoekin bilera batzuk egin zituztela uste dut, kon-tuok jakiteko. Bakoitzak bere ardurak hartu zituen, eta horri eskerrak antolatu ziren antolatu beharrekoak.

Dirua biltzeko izan ohi da Kilometroak. Alde horretatik, onak izan al ziren zuenak?

BALENTZIAGA: Niri ez zitzaidan inor diru eske etorri, behintzat, eta lortuko ahal genuen [barreka]!

MAKAZAGA: Dirua egitea beti da helburua, baina, gure ga-



rairako, giroa egitea ere garrantzitsua zen. Ordurako, eztabaidagai zegoen eskola publikoa zer den, zer ez den, zeinen menpe egon behar duen... Nik argi daukat ikastolak publikoak direla, herri-

eskolak direlako. Ikuspegi horren alde egitea, ikastolen aldeko giroa sortzea, garrantzitsua zen guretzat, eta ekitaldi asko antolatu ziren horretarako. Oso gauza politak egin ziren, eta parte-hartzea

Lurkaas





ikaragarria izan zen. Zenbat jendek ematen dituen bere lana eta gogoia musu-truk halakoetan, ikaragarria da.

BALENTZIAGA: Publikotasunaren gaian gakoa dago, nire ustez, nondik joan behar

duen, Espainia mailan edo Euskal Herri mailan, zeri eta nondik lotuta egon behar duen.

MAKAZAGA: Hor eskumenen banaketaren gaia agertzen zaigu. Noren esku dago? Es-

painiaren esku? EA Eren esku? Nafarroaren esku? Gurasoen esku? Seaskarekin gertatzen ari denaz zer esan? Frantzia estatu zeharo zentralista da, eta irakasleak ezin lotuta dabilta.

BALENTZIAGA: Oraindik ere hara laguntza bidali beharra izaten da eta! Gure garaietan bezala.

MAKAZAGA: Nik 53 urte ditut, eta nik sekula bozkatu gabeko konstituzio baten menpe bizi gara. [Francisco] Franco-ren garaian hezi eta hazitakoek erabaki behar dute guk nola, zein arauen arabera bizi behar dugun? Ez da posible!

BALENTZIAGA: Horrek era-

bateko logika dauka, baina. Diktadura batetik dator, eta Francok esan zuen dena "lotua eta ondo lotua" uzten zuela. Eta halaxe da.

Badago zer egina, beraz, aurrrera begira. Baita hain estrategikoa den hezkuntza-arloan ere.

BALENTZIAGA: Badago zer egina, bai, baina suabe-suabe, azpitik jokatuta eta borroka agerikorik gabe. Xaboi asko behar da eskuetan, zerbait lortuko bada. Bestela, zartailua aterako digute.

MAKAZAGA: Lan asko dago egiteko, hori argi dago. Eta munduko xaboi guztiarekin ere, haien zain egonda ez dago zer eginik, nire ustez.

KENDU
HERRAMIENTAS DE CORTE
CUTTING TOOLS





SETALDE

Etorbizuna eraikiz





*inpresio profesionala,
agindutakoa bete,
eta arreta pertsonalizatua
hauek dira gure bereizgarriak.*

Inprenta profesionala kalitate goreneko offseta

Merkatua oso lehiakorra dela badakigu eta GERTU-n lagun zaitzakegu hobeto dakiguna egiten, ekoizpen-prozesu osoa bertan egiten bait da. Horregatik, beste hornitzaile batzuk baino prezio eta epe hobek eskain ditzakegu.

- ALDIZKARIAK
- AGENDAK
- LIBURUAK
- EGUTEGIAK
- KARTELGINTZA
- PAPERGINTZA
KORPORATIBOA

Eta lanari amaiera perfektua emateko beharrezkoa duzuna...

- DISEINU GRAFIKOA
- ENKUADERNAKETAK
- PLASTIFIKATUAK
- TROKELATUAK





Ni, hi, hura... Ikastola mundura!

Itsasotik zeruraino
urdinean urdinago,
herria dut, herria naiz,
ikastolatik harago.

Ni naiz abiapuntua,
Ni naiz hitzaren arnasa,
Ni naiz harri-koxkorrekin
eraikitako jolasa.

Ni, hi, hura... ni, hi, hura...
jauzi eginik gura
ni, hi, hura... ni, hi, hura...
Ikastola mundura!

Hi haiz behinola egin zen
habia baten oraina,
geroztik nor babestua
izan duena ordaina.
Inoiz baino ederrago,
inoiz baino berdeago,
bide hontan emandako
pauso bakoitzean hago.

Ni, hi, hura... ni, hi, hura...
jauzi eginik gura
ni, hi, hura... ni, hi, hura...
Ikastola mundura!

Hura putzu more
bat da eta putzuaren jiran
mamorruak hor dabilta
algaraka kalejiran.
Patinetez, bizikletaz
edo eskutik helduta,
irten gaitezen mundura
mundua zain daukagu ta!

Ni, hi, hura... ni, hi, hura...
jauzi eginik gura
ni, hi, hura... ni, hi, hura...
Ikastola mundura!





Kilometroak zenbakietan

16

Lantalde sortu dira guztira festa erraldoia antolatu ahal izateko: Txosnak, Osasuna, Prebentzioa, Ikuskizunak, Segurtasuna, Giza baliabideak, Komunikazioa, Erronka, Ekonomia, Jasangarritasuna, Feminismoa, Protokoloa, Muntaketa, Zirkuitua, Arropa eta Inklusioa.

Bakoitzak bere funtzioa dauka antolaketak bere osotasunean egin dezan aurrera, eta ilusioz jardun dute prestaketa lanetan, dena ondo irten dadin. Aipatzekoa da Ekonomia-lantaldean beharizan zehatzagoetarako bi azpitalde sortu direla: Gure Zozketa eta Tonbola.

1.015

Ikasle ditu egun Salbatore Mitxelenak, eta, guztira, 630 familia dira Zarauzko Ikastolako kide.

169

Irteera egin dituzte Kilometroetako arropen salmentaz arduratu diren boluntarioek. Herriz Herri, ekitaldiz ekitaldi ibili dira postutxoa jarri eta arropa salduz iazko abenduaz geroztik. Horrez gain, uztailean eta abuztuan malekoian ere izan dira boluntarioak arropa saltzen, egunero-egunero.

168

Irteera egin dituzte boluntarioek Gure Zozketako boletoak saltzeko, Euskal Herriko txoko ezberdinetara.

1.500

Boluntarioen laguntza beharko da urriaren 6an dena ondo irten dadin. Auzolana da Kilometroen gakoetako bat, eta antolatzaileek herritarrei dei egiten diete egunean bertan borondatez lan egin dezaten. Horretarako prest dagoenak aurtengo Kilometroen webgunean eman dezake izena.

Ehunka

Aldiz bildu dira batzordeetako kideak, bakoitzak bere arloa lantzeko. Lantaldeak sortu zirenetik ia egunero izan da bilera bat, batzorde asko daudelako eta makina bat ekintza antolatu direlako. Urriaren 6a hurbiltzen doan heinean, gehitzen joango dira bilera horiek, egun handirako antolaketa-lanak ahalik eta zehaztuen egon daitezen.



ikasjai



euskaltel

KILOMETROAK 2019
URRIAK 6 ZARAUZ

ikastola munda!



3
MALEKOA

2
MOLLARRI

1
IKASTOLA

ANIZTASUN FUNTZIONALA:
MOLLARRI GUNERA IGOTZEKO
ZERBITZUA ESKEINIKO DA.
Ikastolako ondoko aparkalekutik.

P KOTXEAK ETA AUTOKARABANAK

P AUTOBUSAK

A-8



GARBITU

INDUSTRIA GARBITASUNA



KIMIKOAK



ZELULOSAK



OSAGARRIAK

Banatzale ofiziala:



XIMEN


94 671 48 48
euskal@garbitu.net



- SOS
- KOMUNAK
- KOMUN EGOKITUAK
- PARDELAK ALDATZEKO GUNEA
- TXOSNA
- BAZKARIAK
- IZOZKIAK
- KMK DENDA
- TIKETAK
- ERRONKA PROBAK
- ITURRIA
- KAFEA
- TONBOLA

hi 1 IKASTOLA

KORTAZAR BERTSOLARI PLAZA PARKEA PATIOA




IKASTOLAN **35€**

IBILBIDEAN ZE HAR

ITURENGO JOALDUNAK / IÑURRITZA TXARANGA
 TTUNTURROAK / TOLOSAKO GIRO-ARTE / DULTZAINEROAK / ZARAUZT'TRIK
 AGOSTI ETA BARRENA / ZARAUZKO BANDA / BATUKADA FEMINISTA
 KUMBIAÑ BERO / BROKEN BROTHERS BRASS BAND / BONBERENEA TXARANGA





JANGELA  **Helduak 15€ / Haurrak 8€**
 Antoniano Kirol Ekartean

EZ AHAZTU!



TRANSMISORAK
 HONEN BIRI BERTAN ERABILTZEKO

Hondakinak sailketu:
 organikoak, plastikoa, paperoa eta kartoiak, beira, erretusa

PRIMERAN PASA PASATU GABE

AUKERAN, GARBIAN EDAN!

Alkohola eta beira zirkuituan sartzea debekatua dago.

ERASO SEXISTARIK EZ!!




Jaiak aske bizi eta gozatu

GOGORATU!
 Urriaren 21ean



izan argi!
 HAZKARITZA ERABILTZEKO



ASPERTZEKO BETARIK EZ!

Goizeko 09:30ean hasi eta iluntzera arte ez da zereginik faltako urriaren 6an Zarautzen. Kontzertuak, ipuin-kontalariak, ikastaroak, dantza-saioak... Ez du lan makala egin egitaraua prestatzen aritu den batzordeak. Ondo pentsatuta prestatu ere, irizpide ugari hartu baitituzte kontuan musika-taldeak eta

bestelako artistak ekartzeko orduan. Zarauzko taldeen presentzia, emakumeak oholza gainean izatea, musika-mota ezberdinak entzuteko aukera izatea, talde guztien emankizunak euskaraz izatea... Hemen daude egun handian gozatzeko aukera izango den ekitaldietako batzuei buruzko azalpenak:



ZARAUZKO UDALA





Pottors eta Klito

Duela aste batzuk sare sozialetatik iragarri zuten laster izango zela haien berri, eta hain zuzen, Kilometroetan izango da Zarauzko punk-talde feminista. 2009az geroztik hainbat urtez aritu dira herriz herri kontzertuak eskaintzen. Zarautzen ere hainbatetan jotakoak dira, baina Kilometroetan joko duten lehen aldia izango da taldeko lau kideentzat. 12:30ean izango da kontzertua, malekoiko oholtzan.



Sonakay

Donostiako Sonakay taldea famatu egin zen telebistako talentu-lehiaketa batean Txoria txori abestia flamenko bertsioan abestu zuenean. "Gu ijitoak eta euskaldunak gara, eta gure bi kulturei aitortza egingo diegu abesti honekin". Bost kidek osatzen dute taldea: bi perkusiok, gitarrak, baxuak eta ahotsak. Oro har runba eta flamenko doinuak jotzen dituzte, eta Mollarrin izango da haiek entzuteko aukera Kilometroetan, 11:00etatik aurrera.

Tik tara

Eskuak basotik eta poltsikotik aldendu eta gerriak mugitzeko gonbita egiten du Tik Tarak. Hala dio beraien leloak ere: Gora gerri askeak! Zarautzen sortu zen talde hau ere, eta taldekide gehienak bertakoak dira. Saltsa doinu dantzagarriak jotzen ditu Tik Tarak gehienbat, edo beraiek dioten moduan, munduko erritmoak. Munduaren hego-hemisferioko doinuak bereganatu eta euskarazko letrak jarri dizkiete. Abesti horiek entzuteko, abesteko eta dantzatzeko aukera izango da Ikas-tolako gunean, 16:45ean hasita.





20 // Jolas parke berria

KILOMETROAK

Baso bat, erabilera asko

Haur asko elkartzeko asmoa duten jaialdietan, ohikoak dira puzgarriak, pailazoak, musika-emanaldiak eta beste. Aurtengo Kilometroak-en ere izango dira halakoak, nola ez. Salvatore Mitxelena Ikastolako patioan ezarriko dira puzga-

rriak, esaterako, baina baita Haurren Basoa izena hartu duen guneko lasaiago baten zatiak ere. Ez da ikastolen aldeko festa baten harira halako bat antolatzen den lehen aldia, eta aurreko esperientziak lagungarri gertatu zaizkie Zarauzko



ikastolako Kilometroak-erako beren proposamena egiterakoan.

Gunearen beraren izenak argi uzten duen bezala, haurrak izan dira basoaren inspiratzaile nagusiak. Haiek egin dute basoan gustura ikusiko lituzketen osagarrien zerrenda, eta, ondoren, gurasoek osagarriok egia bihurtzen saiatu dira, auzolanean.

Eraitza: ikastolako patioan zati bat —kirol-kantxetatik bereiz geratzen zena— eta

inguruko eremu berdea hartu dituen jolas librerako eta atsedenerako gunea. Eremu berderako, esperimintatzeko eta lasai egoteko espazioa diseinatu dute, lasto-fardelekin, punteria- eta oreka-jolasekin, labirinto txiki batekin, eskulan- eta musika-txokoarekin... Ikastolako patioan, berriz, egurrezko txabola, arranpa, igotzeko zutoina, autobusa, autoak, aterpea, txalupa txikia, barandak, enborrak... prestatu dituzte,



Kutxa Fundazioan euskara bizi dugulako

Elkartasuna, Kultura, hezkuntza, zientzia, ingurumena, aisia...

Era guztietako adierazpenak euskaraz bultzatzea gure gizarte-konpromisoaren parte delako.

Urriak 6, Zarautz





eta arbola-azal xehatuz es-tali dute zorua, umeei jolas librerako aukera berezia eskaintzeko.

Elkarlana eta autogestioa

Ordu asko eman dituzte gurasoek basorako materiala aurkitzen eta prestatzen. Musu-truk lortu dute ia guztia —baita ohiko jolas-parkeetako hainbat osagai

ere—, eta, gero, tarte libreetan moldatu. Urriaren 6ko

Ikasturte berriarekin hastean ezagutuko dute patioko gune berria ikasleek

egun handirako baso bat eraikitzeko helburuarekin,

betiere. Ez dute elkarlana egun bakarrean gozatzeko soilik planteatu, hala ere, patioko baso-parte berre horretan, dagoen lekuan utziko baitute ikastolan egitekoak diren obra handia egin bitartean. Tarte horretan, eremuko txoko egokienak, erabilienak eta egokitu beharrekoak zein diren ikusi eta identifikatu ahal izango

dute, eta, horrekin, ikastola berrituan jolas ez-arautuen gune ahalik eta txukunena diseinatu. Ikasturte berria hastearekin batera ezagutuko dute patioko gune berria ikasleek. Lehen azterketa horren ondoren etorriko da bestea: Kilometroak egunean bertan Haurren Baso osoa bisitatu eta gozatzeko dutenena.



BIDELAN



Alternatiba, gozatzea

Etengabeko eraldaketak bizi dituen prozesua izan da Kilometroek 43 urtean zehar egindako ibilbidea. Gauza asko aldatu, hobetu eta findu dira urteetan zehar, eta aurtengoa eredu honetako azken festa izateak ere badu zerikusirik eraldaketa horrekin.

Bide horretan inflexio-puntuetako bat ezarri zuten 2013ko Kilometroek. Tolosan prestatu zuten festa erraldoia urte hartan, eta festa-ereduaren inguruan sortzen diren zalantzen artean, batek kezkatzen zituen bereziki antolatzaileak: nerabeek Kilometroak zuzenean alkoholaren kontsumoarekin lotzeko duten joerak, hain zuzen. Beraz, adin-tarte jakin bateko jendeak festan zuten parte-hartzea eraldatzeko asmoarekin sortu zen Erronka.

Zertan datza, baina? Kirol-, logika- zein sormen-jarduerara batzuekin egun osoko txapelketa antolatzen dute Erronkaren arduradunek. Gipuzkoako ikastola guztiei egiten zaie gonbita parte hartzearen, eta ikastola bakoitzak talde ordezkaria osatzen du. DBH 3 eta DBH 4ko ikasleek, bi irakaslek eta bakoitzaren herriko kirolari batek osatzen dute taldea.

Egitarauan ikus daitekeen moduan, espazio garrantzitsua hartzen du Erronkak Kilometroetako egun handian. Ikastolan izango dira proba gehienak, baina itsasora ere hurbildu beharko dute parte-hartzaileek, lehian aurrera egin nahi badute. Taldeez gain, gurasoak eta lagunak ere hurbildu ohi dira Erronkako proba dibiertigarriez gozatzera eta norberaren taldea animatzera.



Salbatore Mitxelenako ikasleek ez dute hutsik egiten urteroko hitzordura, eta duela bi urteko lehiaketan hirugarren postua lortu zuten. Oraindik ezin da jakin aurtengoan zer gertatuko den, baina ziur Salbatore Mitxelenakoentzat berezia izango

dela urriaren 6ko Erronka.

Erronkako taldeek lehiaketa paralelo batean ere hartzen dute parte, hala nahi izanez gero. Taldeko kide bakoitza ahalik eta modu original eta txukunenean aurkeztuz, bideo bat osatu behar dute ekainean, udako oporrak hasi

elkor

maquinaria y herramienta para la madera y aluminio



BORDA
ARDOAK



KILOMETROAK

//23
Erronka

baino lehen. Lehiaketa honek, gainera, bi sari ditu: epaimahaiarena eta publikoarena. Ikus-entzunezkoekin ere abilak direla erakutsi izan dute Salbatore Mitxelenako ikasleek; izan ere, bi sariak irabazi izan dituzte, eta irabazitako dirua ikasbidaiera bideratu izan dute.

Aurtengo txapelketan parte hartuko duen taldea osatuta eta prest dago dagoeneko. Irati, June, Malen, Izaro, Nahia, June, Malen, Amaia, Julen, Ugaitz, Manex, Oinatz eta Ander ez dira erronken beldur, eta hori erakusteko aukera izango dute urriaren 6an.



AH ARRONKA HINOS S.L.

induo collection
SUKALDEAKARMAIRUAK





Euskararekin bat!

Enpresa eta kolektibitateen ekipamendu osoa

www.montte.com

montte projects

Eremu eta bame
ekipamendu proiektuak

www.montteprojects.com

montte tech

Azpiegitura informatiko eta
tecnologi soluzioak

www.monttetech.com

montte supplies

Enpresa eta eskoletarako
horniketa orokorra

www.montte.com



KILOMETROAK

xxxx, 2019ko xxxaren xxa



Lekuko aldaketa, Urretxu-Zumarragako Kilometroetan
2018/10/07



Ikastola: zergatik eta zertarako? mahai ingurua
2019/02/28



Logo eta leloaren aurkezpena
2028/11/30



Kilometroak Txikia
2019/02/24

Urretxu Zumarragan hasi zen gure bidea. Hango ikastola-koek pasagu ziguten lekukoa, eta hilabete batzuetara, herrian aurkeztu genuen, lelo eta logoarekin batera. Hausnartu genuen Ikastolaren izaeraz eta zergatik eta zertarako nahi dugun haren alde egin. Herria girotzen hasteko, jendetza bildu zen Kilometroak Txikian, eta gure izanarekin bat eginez, Lila-toian ere hartu genuen parte.



Lilatoia
2019/02/10





26 // Denbora-Lerroa

KILOMETROAK



Abestiaren aurkezpena
2019/05/03



Hondartza Hartu!
2019/06/15



Korrika 2019/04/12



Reala-Racing partida 2019/07/20



Pagoeta Eguna 2019/06/02





KILOMETROAK

Abesti zoragarria aurkeztu genuen, Korrikan izan ginen, Pa-goetara igo ginen Mendimetroetan, Hondartza hartu genuen, futbolari profesionalak izan ziren gurean, milaka opari banatu genituen tonbolan, Euskal Herriko hainbat txoko elkartu genituen eskubaloia aitzaki hartuta... Hainbat bizipen eta argazki utzi dizkigu urtebeteko bideak. Hurrengo argazkia, urriaren 6koa izango da!



Tonbola malekoian, 2019/07/20-21



Euskal Herriko eskubaloitopaketa 2019/08/31




RESTAURANTE
ARGUIÑANO
ANAIK
JATETXEA





28 // Ziklo baten amaiera

KILOMETROAK





KILOMETROAK

Parte hartu Gure Zozketan!

Sari tentagarria du Kilometroetako zozketak. Bost euroren prezioan, 60.000 euro poltsikoratzeko aukera paregabea eskaintzen du. Bide batez, gainera, Kilometroei eta haren atzean dagoen guztiari ekarpena egiteko modu bikaina da. Euskal Herriko hainbat aurpegi ezagunek erosi dute dagoeneko beraien boletoa. Salgai daude hainbat denda eta tabernatan, eta urriaren 6an bertan ere izango da erosteko aukera.





UMEENTZAKO JOLASAK

JOLAS PARKEEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
MUNDU BAT NEURRIRA
MATERIAL BIRZIKLATUAZ ERAIKIAK
KALITATEA ETA SEGURTASUNA BERMATUA
INKLUSIBITATEA
BERTAKOTASUNA

KMK19 ETA EUSKARAREKIN BAT



www.jolasplay.com

Maria Etxe Txiki 19 - 20800 Zarauz

943833400

info@jolasplay.com





Haziko al da euskarazko ekoizpena?

Euskarazko ikus-entzunezko edukien etorkizuna guztion ardura da. Eraiki dezagun gure etorkizuna denon artean, Gipuzkoa izan dadin Europan desberdintasun gutxien duen lurraldeetako bat.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA
ERAIKIZ**
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz



UNIBERTSITATE GRADUAK

ENPRESA KUDEAKETA ETA EKINTZAILITASUNA

[OÑATI, BILBAO, BIDASOA, MADRIL, BARTZELONA,
VALENTZIA, SHANGHAI, PUEBLA, QUERETARO, SEUL]



INGENIARITZAK

[ARRASATE, GOIERRI,
ORONA IDEO, BILBAO]

Learning from reality

HEZKUNTZA, KOMUNIKAZIOA ETA HUMANITATEAK

[ESKORIATZA, BILBAO
ARETXABALETA]



GASTRONOMIA

[DONOSTIA]